



ALAVESIA SARIAREN 1. EDIZIOA

GRADU AMAIERAKO LANENTZAT (GrAL) ETA MASTER AMAIERAKO LANENTZAT (MAL)

2025-2026 ikasturtean GrAL edo MAL aurkeztu duten Farmazia Fakultateko (EHU) ikasleei zuzendua.

SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Farmazia Fakultatearen eta ALAVESIAREN (Arabako Natur Zientzien Museoaren Lagun Elkartea) arteko lankidetzaz hitzarmenaren esparruan, *ALAVESIA Sariaren 1. edizioa* deitzen da, 2025-2026 ikasturtean Farmazia Fakultateko Gradu eta Masterretako ikasleek aurkeztutako GrAL edo MAL onenetako bat saritzeko.

OINARRIAK

1. Artikulua. Xedea

Sariaren helburua da oinarri hauetako 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen eta 4. artikuluan jasotako baremoaren arabera puntuaziorik handiena lortzen duen GrAL edo MAL aitortzea.

Saria ALAVESIAk emango du, horretarako eratuko den epaimahaiaren txostena jaso ondoren.

Sarietarako hautagaitza aurkeztea bateragarria izango da eskatzaileak aurkezten duen beste edozein hautagaitzarekin, baita beste deialdi, beka edo dirulaguntza batzuetara aurkeztearekin ere.

Sariaren zenbatekoa 300 eurokoa izango da.

Sariaren zenbatekoari indarrean dagoen legerian ezarritako zerga-atxikipenak aplikatuko zaizkio.

Saria eskuratzeko eskabidea aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea dakar.

Deialdiaren oinarriak ALAVESIAren webgunean daude eskuragarri: alavesia.org.

2. Artikulua. Baldintzak

ALAVESIA saria jaso ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek:

- 2025-2026 ikasturteko deialdi ofizialetako edozeinetan GrAL edo MAL defendatu eta gainditu izana.
- GrAL edo MAL Espainiako Estatuaren hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzita egotea eta egile bakar batek egina izatea.
- Arabako Natura Zientzien Museorako eta/edo Arabako Lurralde Historikorako interesgarria eta garrantzitsua den gaia lantzea, honako arlo hauetako edukiekin lotuta: botanika, zoologia, geologia, hidrogeologia, geomorfologia, ingurumena, antropologia, eta ingurune naturalaren kontserbazioa eta dibulgazioa.

3. Artikulua. Eskabideak aurkezteko epeak

Bi kategoriaetarako (GrAL eta MAL) bi aurkezpen-epe ezartzen dira:

- Ekainaren 15etik uztailaren 15era arte (biak barne).
- Irailaren 15etik irailaren 25era arte (biak barne).

Eskatzaileek mezu elektroniko bat bidali beharko dute helbide honetara: alavesia@alavesia.org. Mezuan honako datu hauek adierazi beharko dira:

- Lanaren egilearen izen-abizenak.
- Lanaren izenburua.

Era berean, lanaren kopia bat PDF formatuan erantsi beharko da.

4. Artikulua. Epaimahaia eta ebaluazio-irizpideak

Epaimahaia hiru kidek osatuko dute: ALAVESIAk proposatutako bi kidek eta Farmazia Fakultateak proposatutako hirugarren kide batek.

Epaimahaiak aurkeztutako lan bakoitzari puntuazioa emango dio honako irizpide hauen arabera:

1. Arabako Natura Zientzien Museoaren bilduma, datu eta baliabideekin duen lotura, baita horiek aberasteko duen ahalmena ere, eta Museoaren ikerketa-ildoekin eta arlo zientifikoekin duen harremana (gehienez 40 puntu).
2. Arabako ingurune naturalaren ezagutzari eta kontserbazioari egiten dion ekarpena, ondare natural, biologiko eta geologikoa kudeatzeko, monitorizatzeko, leheneratzeko edo hobetzeko proposamenak barne (gehienez 25 puntu).
3. Arabako ondare natural, biologiko eta geologikoaren inguruko dibulgazio zientifikorako eta gizarte-sentsibilizaziorako duen ahalmena, bai eta Arabako Natura Zientzien Museoaren eta/edo ALAVESIAren hezkuntza- eta erakusketa-jardueretan erabiltzeko aukera ere (gehienez 20 puntu).
4. Lurraldearen, ondare naturalaren eta Arabako Natura Zientzien Museoaren eginkizunaren ikuspegiaren originaltasuna eta berrikuntza, aurretik aipatutako arlo zientifikoekin lotuta (gehienez 15 puntu).

Lan bakoitzak gehienez 100 puntu lor ditzake.

Epaimahaiak saria eman gabe uzteko eskubidea izango du, aurkeztutako lanetako bat ere oinarri hauetan ezarritako baldintzetara egokitzen ez dela iritziz gero.

5. Artikulua. Emaizaren argitalpena eta sari-banaketaren ekitaldia

Epaimahaiaren erabakia 2026ko irailaren 30ean argitaratuko da ALAVESIAren webgunean: alavesia.org.

Saria Farmazia Fakultateko ikasleen graduazio-ekitaldian emango da, urrian egingo den ekitaldian.

Horrez gain, saritutako pertsona gonbidatua izango da saritutako GrAL edo MALaren alderdi garrantzitsuenak azaltzeko hitzaldi bat ematera. Ekitaldia Farmazia Fakultatean egingo da.

6. Artikulua. Datu pertsonalen babesa

Deialdi honen ondorioz ALAVESIAk eta UPV/EHUko Farmazia Fakultateak eskuratzen dituzten parte-hartzaileen datu pertsonalak ALAVESIA Sariaren kudeaketa, deialdiaren ebazpena eta emaitzen zabalkundea egiteko erabiliko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

Tratamenduaren arduraduna ALAVESIA izango da (alavesia@alavesia.org) eta, dagokion neurrian, UPV/EHUko Farmazia Fakultatea.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko eta eramangarritasunerako eskubideak baliatu ahal izango dituzte, horretarako idatzizko eskaera bat bidaliz adierazitako

posta-helbidera edo harremanetarako helbide elektronikora, gaian honako hau adierazita: «ALAVESIA Saria – Datuen babesa».

Deialdian parte hartzeak baimena ematen du saritutako pertsonen izen-abizenak eta haien GrAL edo MALaren izenburua ALAVESIaren eta UPV/EHUren komunikazio-bide instituzionaletan argitaratzeko, sariaren eta saritutako lanen berri emateko helburu bakarrarekin.

7. artikulua. Jabetza intelektuala eta zabalkundea

Aurkeztutako GrAL eta MALen egiletza eta jabetza intelektualeko eskubideak egileei dagozkie, indarrean dagoen araudiaren eta UPV/EHUren araudiaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, hautagaitza aurkezteak ALAVESIari eta UPV/EHUko Farmazia Fakultateari baimen ez-esklusiboa, doakoa eta lurralde-mugarik gabea ematea dakar honako hauetarako:

- Saritutako lanaren edo, hala badagokio, aipamen berezia jasotzen duten lanen izenburua, laburpena eta oinarrizko datuak zabaltzea.
- Saritutako GrAL edo MALaren testu osoa formatu digitalean erreproduzitzea eta jendaurrean komunikatzea, beren webguneen eta bestelako kanal instituzionalen bidez, dibulgazio akademiko eta zientifikoko helburuekin, betiere egiletza aipatuz.

Artikulu honetan aurreikusi gabeko beste edozein erabilerak egilearen berriazko baimena beharko du.